

Durangoko Udalak kultura sortzeko 16 beka eman ditu, 95.000 eurokoak

Beka hauen helburua da sormen-prozesu zehatzak bultzatzea ondorengo arte diziplinatan: Arte eszeikoetan, ikus-entzunezkoetan, musikagintzan, literatura eta ilustrazioko proiektuetan, arte lan plastiko eta grafikoetan, edota kultura proiektuetan. Guztira 39 eskaera egon dira.

Durangoko Udalak dagoeneko aukeratu ditu "Durango Sor (tzaileen) Leku" beken onuradun izango diren 16 proiektuak. Epai-mahaia sektoreko hiru profesional independentek eta udal arduradun batek osatu dute, euren lana izan da aurkeztutako 39 eskaeretatik interesgarrienak hautatzea. Urte bete egongo da lanok garatzeko.

Beken deialdi honek 95.000 euroko zuzkidura du, eta arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan, musikan, literaturan eta ilustrazioan, obra plastiko eta grafikoetan eta proiektu kulturaletan sormen-prozesu zehatzak bultzatzea du helburu.

Bekak jaso dituzten proiektuak

Sorkuntza eszenikoaren kategorian, honako proiektu hauek lagundu dira, 5.000 euroekin: Igor Iglesiasen "Tarzan", Cecilia Paganiniren "Muna", Elene Carretoren "Topatuko garen leku horretan", Bagara Kolektiboaren "I[n]tera[k]zioa" eta Maider Lopezen « Edurnezuriren Hiru Heriotzak ».

Ikus-entzunezko sorkuntzan, 15.000 euro jaso ditu Ainhoa Olasoren "Hemen bizi da maitasuna" proiektuak.

Musika-konposizioen sorkuntzari dagokionez, 5.000 euroko laguntza emango zaie Egoitz Etxebarriaren "Amantra" eta Ander Erzillaren "Sustraiak Adarretan" proiektuei.

Literatura eta ilustrazio lanen sorkuntzarako 5.000 euro jasoko duten proiektuak dira Uxue Egiaren "Ustekabean Krak", Mikel Uribelarrearen "Gorputz txiki batean jaio nintzen" eta Peru Madalena eta Iraia Okinaren "Dakota Txikiren muki bidaiaria".

Artelan plastiko eta grafikoaren sorkuntzarako 5.000 euro jasoko dute: Carlos Martinez Bordoyk "Un agujero en el cielo" lanerako, June Baonza Pagaldayk "Ama ta asunak" proiekturako, Jone Erzilla Etxegibelek "EX3" garatzeko eta Ismale Iglesiasek "Begizulo" proiekturako.

Azkenik, **kultura proiektuen kategorian**, 10.000 euroko laguntza jasoko du Nerea Gaston Taberaren "Los lavaderos de Barrenkale" egitasmoak.

Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Ríos alkateordeak proiektuen aurkezpenean nabarmendu dutenez, "Merkataritzan edo ostalaritzan egin dugun bezala, ezinbestekoa iruditu zaigu kultura sustatzea, eta horrek kultur sortzaileei laguntzea ere eskatzen du. Zuzkidura ekonomiko oso garrantzitsua bideratu dugu; izan ere, beste sektore batzuetan bezala, uste dugu erakundeek azken bi urteetan gehien kaltetutako

sektoreei lagundu behar diegula. Udalaren laguntza horrek hautatutako artistek beren proiektuak modu lasaiagoan garatu ahal izateko balio izatea espero dugu; izan ere, emaitza hobea izango da, eta durangar guztiek gozatzeaz gain, artea eta sorkuntza, alderdi askotatik, interesatzen zaizkien pertsona guztiek ere gozatu ahal izango dute.”

Bi udal ordezkariak sorkuntzari laguntzeko neurri hauen garrantzia azpimarratu dute. Izan ere, kultur kontsumoa sustatzeaz haratago, sormen-prozesuetan laguntzen dute hala arte-karrerak garatzen lagunduaz, Carlos Martínez Bordoy eta Ismael Iglesiasen kasuan bezala, zeintzuek euren garaian Udal honek bultzatutako beste sorkuntza-beka bana jaso baitzuten.

Parte-hartzaileen profila

Nabarmentzekoa da eskatzaileen profilaren aniztasuna. Bi udal ordezkariak nabarmendu dutenez “jasotako 39 proposamenen artean, era guztietako profilak topatu ditzakegu, besteak beste sortzaile konsagratu zein hasi berriak, euren bizkarrean karrera sendoak dituzten artistak edo oso artista gazteak; eta baita ikasketaz artearekin zerikusirik izan ez arren arte lan borobilak proposatzeko gai direnak ere. Gainera, nabarmenduko nuke deialdi honi esker gure herriaren sormen potentzial garrantzitsua azalarazi dela”

Epai-mahai kideak

Epaimahaia honako hauek osatu dute: Galder Perez Radio Euskadiko Kultura Edukien Zuzendariak, Miriam Romatet Zumaiako Udaleko Kultura Saileko Zuzendariak, Xabier Galtzarain idazle eta arte kritikariak eta Ane Abanzabalegi Astarloa Kulturgintzako Lehendakariak. Aurkeztutako proiektuen kalitate handia eta kultur zirkuituan izan dezaketen proiektzioa nabarmendu dituzte.

39 proiektu aurkeztu dira deialdira: 8 sorkuntza eszenikorako, 3 ikus-entzunezko sorkuntzarako, 2 musika-konposizioak sortzeko, 8 literatura- eta ilustrazio-lanak sortzeko, 10 obra plastiko eta grafikoak sortzeko eta 8 kultura-proiektuetarako.

Aurkeztutako proiektuen puntuazioan, aurkeztutako proiektuaren kalitatea, originaltasuna, proiektuak jarraipena izateko dituen aukerak, euskararen presentzia eta erabilera edo proiektuan genero-ikuspegia sartzea baloratu dira.

Gauzatzeko urtebeteko epea

"Durango Sor (tzaileen) leku" bekak COVID-19ak udalerriko hainbat eremutan, besteak beste, kultur sektorean, eragindako kalteen aurrean suspertzeko planaren esparruan sortu dira. 2.281.159 euroko Berraktibazio Plana gobernu taldeak egin zuen Durangoko hainbat eragilerekin eta Udaleko alderdi politiko guztien babesari izan zuen.

Behin aukeraketa publiko eginda, sortzaileek gehienez 12 hilabete izango dituzte beren proiektuak landu eta publiko egiteko.

Beka jaso duten proiektuak

- **Eszenarako sorkuntza**

TARZAN – Igor Iglesias

Tarzan **umeei zuzendutako antzezlan** bat izango da. Tarzanek oihaneko beste guztiak bezalakoa izan nahi du, horrek arazo ugari sortuko dizkio, guk umoretik landuko ditugunak. Azkenean, psikoanalista baten laguntzari esker jakingo dugu nola heldu zen oihaneraino eta nolako abenturak gailendu behar izan zituen oihaneko errege izatera iritsi arte.

MUNA – Cecilia Paganini

MUNA aretorako **antzezlan bat da, 2tik 6 urte** bitarteko txikitxoei zuzendutakoa, testurik gabea eta zuzeneko musika duena. Keinu antzerkiaz baliatzen da, bateaz ere clown teknikaz, poesiaz eta plastikotasunez jantzitako lan bat sortzeko.

Antzezlanaren sinopsia nahita da oso oso sinplea. Konplexutasunak alboratu gura ditugu, erritmoz, ikusizko eta entzunezko keinuz eta joko eszenikoarekin ordezkatzeko. Oholtzan ikusiko dugu, –edo hobeto, sentituko dugu- jolasa askatasunaren adierazpenaren aldeko hautu sendoa. Bidea helmuga baino garrantzitsuago den bidaia izango da gure.

Sinopsia

MUNA lurpean bizi da, txintxaunen parkearen azpian. Han dago MERO ere, musikari zahar bat. Mikrokosmos poetiko horretan, Muna ezkutalekutik irteten da eta eskura duen guztiarekin jolasten hasten da. Baina ez du edonola jokutzen, parkeko hainbat elementurekin eskailera handi xelebre bat eraikitzen du, bide moduko bat, poliki-poliki goraino igotzen joateko aukera emango diona... gainerakoa ezustekoa da... "

TOPATUKO GAREN LEKU HORRETAN. Elene Carreto

Gizakiok uneoro harremantzen gara, harremanetan murgildu eta hauen bidez sortutako istorio eta abenturetan bidaitzen dugu. Beharra dugu elkarren berri izateko, komunikatzeko eta baita ez komunikatzeko. Egoerek, emozioek eta oroitzapenek norbanakoak eraikitze osagai nagusietako bat dira. Hauetaz elikatu, hezi eta hazten gara gizarte baten parte izanda.

Pieza eraikitze hautatutako egoerak, eta hauetan hautematen diren emozioak, ikusleentzako ezagunak izatea bilatuko da hauek interpreteekin zuzenean konektatzeko. Egoera zehatz hauetaz baliatuta fisikalitate, mugimendu eta lengoia koreografiko zehatz bat landuko da. Hori dela eta, gai honetan ikertzeko biderik zintzoena gorputza dela uste dugu, eta sormen prozesuak bidea egingo dio **kaleko dantza ikuskizun** bat sortzeari.

I[N]TERA[K]ZIOA. Bagara kolektiboa

Mugimendu, irudi eta musikaren elkarrekintzan sakontzen duen **dantza-pieza**. Inprobisazioan eta bat-bateko konposizioan oinarritzen da. Talde amateur gisa Durangon aurkeztu zen 2021eko uztailean eta beka honen helburua profesionalizaziora jauzi egin ahal izatea da.

EDURNEZURIREN HIRU HERIOTZAK. Mainer López

Grimm anaien eskuizkribu zaharrena oinarri hartuta, Edurnezuriren hiru heriotzak Béla Bartoken dantzari, **narratzaile eta musikarentzako obra eszenikoa** da (biolina eta biola eszenan). Emakume eder, argi eta ahaltzu baten istorioa kontatzen da, ziur aski gizateria bezain zaharra, bere alabak tronutik kentzen duenean ahul bihurtzen dena, etorkizun hurbilean are ederragoa eta potentzialki boteretsuagoa. Edurnezuriren amak, beti bigarren maila batean, oraingoan bere haserrea aldarrikatzen du eta eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu bere aurkaria deuseztatzeko.

Kontakizun handiek, indarrean dirautenek, denborak aurrera egin arren gure errealitatetik hain hurbil daudenek, aukera berri bat eskaintzen digute, egungo begirada batetik, batzuetan estetikoa, beste batzuetan kritikoa eta zorrotza, giza pentsamenduaren eta portaeraren bilakaera ulertzeko.

• Ikus-entzunezko sorkuntza

HEMEN BIZI DA MAITASUNA. Ainhoa Olaso

"Hemen Bizi Da Maitasuna" azken urtean Ainhoa Olasok eta Enara Garciak garatu duten **film laburra** da. Konfinamenduan idatzi zuen gidoia Ainhoak eta ondoren proiektua eraikitzen joan dira elkarlanean. Hemen kolektiboaren Aukera programan aukeratua izan zen, eta udan zehar zine inguruko hainbat profesionalekin aritu dira, gidoia, zuzendaritza eta produkzioa lantzen.

Film laburrean, logela eta egonkortasuna hankaz gora aurkitzen dituen gaztearen egoera azaltzen da, emantzipatu aurreko momentua hain zuzen. Familiarengandik independizatu nahi izate horren bidean, leherkari bat kontatzen da finean. Maitasunari espazio, pertsonaia, soinu eta forma ezberdinak emanda.

- **Musika sorkuntza**

AMANTRA. Egoitz Etxebarria

Ikusentzutezko sormen proiektu hau, gizakia eta natura lotu nahi dituen zubi kontzeptual eta musikala da. Era berean, euskal kulturaren mistikotasuna uztartuz eta inguruko artisten kolaborazioz, mantra erritmiko eta poetikoen laborategi batean bilakatur.

Helburua euskal sortzaileen musika eta hizkuntza gure herrian eta munduan zehar hedatzeko haziak erein ta arnak gozatzea.

SUSTRAIAK ADARRETAN. Ander Ercilla

Sortu eta dastatu. Bi kontzeptu horiek garatzeko lurralde bat behar da; guretzako, euskal kultura da territorio hori. Eta lur hori lantzeko gure erramintak, aitzur majikoak, **musika (inprobisatua), poesia eta bertsoak** dira. Hari horri jarraituz eboluzio baten barruan egon nahi duen espresio-bide bat.

- **Literatura eta ilustrazio lanen sorkuntza.**

USTEKABEAN, KRAK – Usue Egia

Pandemia gainera erori arte nahiko lasai bizi zen neska gazte baten sentimenduak eta gogoetak kontatzen dituen **eleberri ilustratua** da "Ustekabean krak". Liburu honek sentimenduez hitz egiten du, introspektzioaz haietarako sarbide gisa, eta irudimenaz haien adierazpenerako bide gisa. Wilson (Naufrago), Chavela Vargas, Zabale kaleko bizilagunak eta Los Panchos bezalako pertsonaiek, besteak beste, konfinamendua bakardadean pasatzen laguntzen diote protagonistari, normaltasun berri eta askatasun-murrizketen garai honetan bizitzen ari dituen egoera emozionalak aztertuz.

GORPUTZ TXIKI BATEAN JAIO NINTZEN – Mikel Uribelarrea

Zer da generoa? Nork erabakitzen da nor garen? Zergatik bete behar ditut zenbait adierazpen ez bazait nirea egiten? Proietu hau **genero disidentziari buruzko eleberri ilustratua** bilakatzeko asmoarekin aurkezten da. Poetikoa, jolaskorra, eta sexu-genero sistema planeatu eta hankazgora jarriko duen lana izango da. Aurretik eginiko

eta kaleratu ez den ipuin bat sakontzea da asmoa. Baita ere euskaraz sexu-genero bitar zishetero sexualetik ikusten baitut gaur egun.

Aniztasuna eta zintza izanik oinarri, ikusgarritasuna landuko dut. Norbanako autonomia bilatuko dute pertsonaiek eta aurreiritziak desikasiko dute maitasunetik, hasarretik, umoretik...

DAKOTA TXIKIREN MUKI BIDAIARIA – Peru Madalena eta Iraia Okina

Proiektu hau **album ilustratu** bat egiteko da. Bertan, Dakota Txiki izeneko ume batek oso deserosoa zaion muki bat dauka. Behin, muki hori kanporatu ondoren, mukia munduan zehar joango da eta hainbat abentura biziko ditu. Umeei hainbeste gustatzen zaizkien kontu eskatologikoak aitzakia bezala hartuz, eta sudurraren higie oinarritzkoa balioetsiz, abenturaren eta ezezagunaren aldarri bat izango da ipuina, umoretsua eta bidaiaria

Testuak Peru Magdalenarenak izango dira, eta ilustrazioak Iraia Okinarenak.

Ilania albumarekin hasi zuten beraien arteko elkarlana, eta oraingoan beste ipuin berri bat egingo dute elkarrekin.

- **Creación de obras literarias e ilustración**

UN AGUJERO EN EL CIELO – Karlos Martinez

Lan honekin, marrazkitik eskulturara abiatzen diren lan batzuk egitea proposatzen dut, azkenean Durangoko antzinako lurralde industrialean argazkiak ateratzeko. Multzo horiek espazioaren ezaugarri zehatzen arabera **instalatu** dira, arkitektura iragankorren antolamendu adierazgarriaren prozeduren espirituan. Izan ere, esan daiteke obra guztiak tokiak zehatzen dituen berezitasunek osatuko dituztela, hutsuneen potentzial formal, funtzional eta metaforikoei helduz. Kontua ez da soilik bertako istorioak oroitzapen eta narrazio anitzen ezaugarrietan pentsatzea, baizik eta oro har isiltasun materialean egoten denari ahotsa ematea.

Bekaren ekarpen ekonomikoari esker, ikerketa eta obren garapen formala lantzeko denbora izango dut.

AMA TA ASUNAK – June Baonza

Amatasunaz eta honi uko egiteaz hitz egitea, **materia bihurtzea, gizarteratzea, barreiatzea eta zabaltzea** da proiektu honen helburua. Esperientzia eta bizipenen isolamenduak gizarte mailan sortzen duen galera aintzat hartu eta konpartitzeko arnas-gune bat sortzea. Galderak, erabakiak, uko egiteak eta deserosotasunak sortzen dizkiguten hautuak; normatik at daudenak eta zalantzan jarri arazten gaituztenak. Eztenkatu, ziztatu, mindu, erresumindu eta azkura ematen digutenak.

Asunak. Ama-ta-asunak. Proiektu honek erresumin horiei guztiei heldu nahi die. Adierazteko behar duten arnagunea eskaini, azaleratu eta loratu daitezten. Gozamenari eta minari, duintasun berarekin tokia eskaini, bizigarriagoak izango diren espazioak sortzeko. Azken batean, amatasunek eta asunek, biek zein biek, partekatzen dituzten bereizgarri antagonikoez baliatzea: Erresumintzeko zein sendatzeko gaitasuna.

E x 3 – Jone Ertzilla

Espazio batean, Durangoko Arte eta Historia museoan, zerbait egotea gustatuko litzaidake, egote hori gerta dadin egite batean murgilduz maiatzera arteko hileetan. Nahi handia dut lanean egoteko, lana egiteko. Gertatuko den horrekiko oso tentu egoteko gogoia dut, horrek exigitzen duen guztiarekin, konpromezu guztiarekin.

Poster bat egin nuen eta nire gelako bi hormen izkina batean dago orain. Beste 100 bat poster ere baditut multzo batean, nire gelako egurrezko mueble baten gainean. Hor daude baina ez ditut bertan utzi nahi, mugitzeko beharra dut. Horman dagoena bertan geratuko da.

BEGIZULO – Ismael Iglesias

Pinturaren ideian sakontzen du begizuloak, hala nola **ataria, atea, leiho bikaina behatzeko**, ikusleari irudi margotuaren bidez errealetik ihes egiteko aukera eskainiz. Wanderlust etimologiak germaniar hizkuntzaraino garamatza. Wandern hitzak "noraezean ibiltzea" esan nahi du, eta lust hitzak, berriz, "Pasioa" esan nahi du. Honek, geroago, anglosaxoi wanderlust terminoa ekarri zuen, hau da, noraezean ibiltzeko grina.

Margotutako irudiaren bidez, autonomia propioa transmititzen saiatzen naiz zoomaren praktikaren bidez, oroimen anitzeko azalera bolumetrikoko konplexuak sortuz, non klasikoa eta futurista – Zibernetikoa, teatrala, mikro eta makro mundu enigmatikoak – Aldi berean elkarrekin bizi diren.

- **Creación de obras literarias e ilustración**

LOS LAVADEROS DE BARRENKALE – Nerea Gastón Tabera

Proiektua Durangoko Barrenkaleko garbitegien inguruan **jardunaldi kultural** batzuk sortzeko proposamena da. Jardunaldi horien bidez, gaur egun utzikeria-egoera nabarmenean dauden espazio horien balioa azpimarratzeaz gain, garbitegien erabiltzaile nagusien memoria historikoa (emakumeak, hain zuzen ere) aintzatestea ere lortu nahi da.